



Prensa oharra

Komenentziako 200 denda ireki asmo du EROSKI k datozen bost urteetan

EROSKI-K "RAPID" IZENeko SUPERMERTATU FRANKIZIATUA INAUGURATU DU IRUÑEKO AVIA GASOLINDEGIAN

- Lehendik ere bazituen eredu komertzial horretako beste hamar denda Madrilen, Levanten, Bartzelonan eta Balear Uharteetan
- Hilabete honetan ireki duen komenentziako hirugarren RAPID denda da
- Aurten, EROSKIren asmoa da komenentziako 20 denda irekitzea, eta formatu berria beste metropoli eremu batzuetara eta kostako eremu turistikoetara hedatzea

Iruñea, 2019ko otsailaren 28a.- [EROSKI](#)k RAPID izeneko beste supermerkatu frankiziatu bat inauguratu du gaur Nafarroan; Iruñean dago, Badostaingo errepidean dagoen [AVIA](#) zerbitzugunean. RAPID da EROSKIren formatu komertzialetan azkena, eta orain bi urte aurkeztu zuen Mallorcan. Oso eredu komertzial lehiakorra da; 140 metro koadro inguruko dendak dira, oso urbanoak eta biztanleria dentsitate handia duten eremu turistikoetakoak.

Lezkairuko AVIA zerbitzuguneko dendak 128 metro koadrotik gora ditu, eta kontsumitzaileek 1.500 erreferentziatik gora dituzte, baita labe propioa ere ogi eta opil egin berriekin. Horrez gain, janaritan, edaritan, drogeriatan eta lurrinetan, ekoizle liderren markak ez ezik EROSKIren marka propioak ditu. Lezkairuko AVIA urte osoan dago irekia, ordutegi zabal batekin: goizeko seietatik gaueko hamarretara.

[AVIA club](#)eko bazkideek klubeko abantailak izango dituzte Lezkairun erostean; hala, %2ko deskontua izango dute ibilgailua hornitzean eta %5ekoa Rapid dendan, zeina hurrengo aldiko erosketan edo horniketan deskontatuko den.

Enpresari txikientzako frankizia berria

Lehendik ere bazituen horrelako beste hamar denda Madrilen, Levanten, Bartzelonan eta Balear Uharteetan. Hilabete honetan ireki duen komenentziako hirugarren RAPID denda da. Orain dela bi aste inauguratu zuten EROSKIren lehen denda izen horekin Gernikako zerbitzugune batean, EAEn, eta joan den astean Logroñoko beste zerbitzugune batean, Errioxan. Kooperatibaren asmoa da

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



frankizien bitartez hedatzea RAPID erako komenentziako dendak, tokian tokiko enpresari txikiekin. 2019an formatu honetako beste hogeituki irekiko dituela iragarri du, eta datorren bost urtean komenentziako 200 dendako sarea izatera helduko dela.

Laster batean erosteko pentsatua dago denda hau; oro har, etxerakoan edo lanerakoan erosteko edo, gune turistikoetan, eguneko edozein momentutan. Hortaz, "denbora falta" duelako komenentziako denda batean erosi behar duenarentzat dago diseinatua; askotan, ustekabeko premiak dituztenentzat etortzen da egoki.

AVIAri buruz

AVIA da Espainian petrolio operadore nagusietako bat: 180 zerbitzugune eta 26 gasozentro ditu, gasolioaren azken kontsumitzailea hornitzen dutenak, hala nola nekazaritzarako, automoziorako, industriarako eta berokuntzarako. 30 probintzian baino gehiagotan hornitzen du. Horrez gain, AVIAk lubrikatzaileak saltzen ditu automoziorako eta industriarako, eta beste energia mota batzuk, hala nola biomasa eta bioerregaiak (PGL petrolio gas likidotua eta GGN garraiorako gas naturala). Besteren artean, AVIAk aukera ematen du zerbitzuguneak errentan hartzeko oso baldintza optimoetan eta hiru ardatzeko kolaborazio eredu baten bultzatzen: bermea, marka liderraren konpromisoa eta AVIAren bultzada. AVIA ez dago soilik Espainiako merkatuan; Europako marka ere bada joan deneko 80 urtean, eta 3.000 zerbitzugune bultzatzen ditu hamalau herrialdetan, denak ere operadore independenteak.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)